

Gazte lanbidearen azoka: PRESTIK 2014

2014/11/28

PRESTIK 2014 Gazte Lanbidearen Azoka, beste gauza batzuen artean, lana bilatzeko, negozio ideiak martxan jartzeko, formazio aukerak aztertzeko, dauden laguntzak ezagutzeko eta beste gazte batzuen esperientziaz ikasteko topalekua da.

Mondragon Unibertsitateak bertan parte hartu du eta Bizkaiko batxilergoko ikasleek Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ingeniari- eta gradu-estudietako eskaintza ezagutzeko aukera izan dute. Era berean, hainbat tailerretan parte hartu dute, adibidez, material arinekin egitura solido bat diseinatu dute edo aplikadore bat muntatu dute euren telefono mugikorretarako.

